



Aulki jokorako prest

Udal korporazioan ordezkartza duten lau alderdietako alkategaiak elkarrizketatu ditu TXINTXARRI-k / 2-9

TXINTXARRI



UDAL HAUTESKUNDEAK 2023

Alkategaien elkarrizketak osorik irakurtzeko, eskanea ezazu TXINTXARRI-ren kanal berezira eramango zaituen QR kode hau



Hipodromo etorbideko jabetzak lehiaketa publiko bidez besterenduko ditu udalak / 11

Ateak berrireki ditu Jalgi kafe antzokiak; herritar ugari bertaratu dira irekiera ekitaldira / 12

LOKE elkarteko gimnastek lan bikaina egin dute Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan / 13

Ostadar SKTren 40. urteurreneko ekimenak dira hilabete amaierako agendako esanguratsuenak / 15

Imanol Lizardi hil da, euskalgintzaren erreferenteetako bat; agur hitzak eskaini dizkiote herritarrek / 16



Gozatu eguraldi onaz! Jan osasuntsu!

GAS
BARBAKOA



**GAS PAELLERA +
HANKAK + ZARTAGINAK**

PLANTXA GRILL ELEKTRIKOA



600 85 75 86
www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com
(on-line denda)

Kale Nagusia, 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21



"Nire herriaren alde lan egiteko ilusioa mantentzen dut"

AGUSTIN VALDIVIA CALVO PSE-EE-KO ALKATEGAIA

Hirigintza zinegotzi izatetik alkate izatera. Alderdi sozialistako alkategaiak hiru urte eta erdi egin ditu karguan. Alkatetzan jarraitzeko 175 proposamen aurkeztu ditu

Nerea Eizagirre

Jesus Zaballosek alkate kargua utzi eta PSE-EEko kide Agustin Valdivia Calvo (Lasarte-Oria, 1973) herritarrek hartu zuen udalaren gidaritzan. Hiru urte eta erdi "gogor" izan direla nabarmendu du alderdi sozialistako hautagaiak. Hala ere, berriro erronkari aurre egiteko prest agertu da.

Zaila izan da alkategai izendapena onartzea?

Jesus Zaballosek alkatetza utzi zuenean, orduan izan zen zaila erabakia hartzea. Erronka onartu nuen desafioak gustuko ditudalako

eta horrelako gauzek aurrera egitera motibatzen nautelako.

Alkatetza hartu eta espero ez genuen egoerari aurre egin behar izan genion; horrek behar nuen esperientzia hartzea ahalbideratu zuen. Udal kudeaketan master bat egin dugu.

Esperientzia hori izateaz gain, orduan nire herriaren alde lan egiteko ilusioa mantentzen dut eta hori guztiagatik ez da zaila izan baiezkoa ematea.

Udal gobernuaren 2019-2023ko legealdiko balorazioa egin beharko bazenu, zer azpimarratuko zenuke?

Oso errepikakorrek gara, baina nik alkatetza hartu eta gutxira pandemia hasi zen. Inor ez zegoen prest egoera horretarako eta udalaren baliabide asko horretara bideratu behar izan genituen. Egoerari aurre egiteko arazoak zituzten herritarrei lagundu genien. Gure proiektuan egiteko zegoena aldea batera utzi eta horretara jarri ginen lanean.

Eta guztia gainditua zegoela zirudienean, Ukraina eta Errusia arteko guda etorri zen eta gure inbertsio plan guztiaren kostua %30 igo zen. Finantziazioa bilatu

eta proiektuen kalkulu guztiak berriro egin behar izan genituen. Herritarrei eragin gabe, hau da, zergak eta tasak igo gabe bilatu behar izan dugu finantzazio hori. Inbertsio oso garrantzitsuak ditugu esku artean eta horiei aurre egiteko modua bilatu behar izan dugu.

Horrek guztiak proiektu garrantzitsuek urte eta erdiko atzerapena izatera eraman gaitu. Eta hori da nik alkate bezala eta nire taldeak udal gobernu bezala dugun frustrazioa; baina beste egoera bati egin behar genion aurre, herritarrei laguntzea, eta zentzu horretan oso pozik gaude.

Hori guztiari aurre eginda ere, 2019an aurkeztutako programaren %85 gauzatu dugu. Udalean urtetan enkistatuak egon diren gai askori irtenbidea bilatu diegu, hala nola, Sasoetako edo Erribera kaleko etxabeei, Kale Nagusia 63 eta 75 arteko arazoei... Batez ere, jendeari lagundu diegu. Gizarte Zerbitzuak eta Zerbitzu Publikoak hobetu ditugu. Eta horretan jarraituko dugu. Horregatik guztiagatik balorazioa oso positiboa da.

Inbertsioak aipatu dituzue eta horietako bat dira kirol instalazio berriak. Noiz izango dira prest?

Atsotakarrek lanak hasi dira. Kontratua sinatzeke dago eta urtebete du enpresak lanak egiteko. Usurbilgo udalak baimen guztiak eman ditu. Enpresarekin lanen gaineko bilerak egin ditugu dagoeneko eta martxan dago.

Michelineko zatiari dagokionez, genituen arazoak konpondu ditugu. Finantziazioa bilatu dugu herritarrei eragin gabe eta udala zorpetu gabe, eta alkate banaiz, egingo dudana lehen gauza uztaileko ohiko lehen udalbatzarrean Michelineko baldintza orriak eta proiektua onartzea izango da. Guztia prest dago horretarako, Hirigintza sailean.

Horren ostean, lanak egiten dituen enpresa aukeratzeko lehiaketa izango da eta urria aldera esleipena. Obrak egiteko bi urte izango ditu enpresak.

Hori finantzatzeko Hipodromo etorbideko etxeak salduko dituzue.

Badakit horregatik kritikatu gaituztela, baina salmenta hori beharrezkoa da kiroldegiko lanak aurrera emateko eta herritarrek euren ekonomian ondorioak ez izateko. Gainera, proiektu hori herritarren eskaera izan da. Eta horrelako etxebizitza salmentarik gehiago emango ez dela esan behar dugu.

Etxebizitzarekin hasi garenez, zein proposamen dituzue arlo horretan? Gure etxebizitza politika argi dugu. Gure herria txikia da eta herritarrei bertan geratzeko aukerak eman nahi dizkiegu.

Gure herrian adin, egoera eta baliabide ezberdinak dituzten herritarrak daude. Jende adindua dago, bere etxea utzi nahi ez dutena eta etxeak behar ezberdinak izan ditzake, energia hobekuntza, irisgarritasun arazoak... Basaundi bailarako auzoan ikusi dugu. Horregatik, eremu txiki horretan laguntzak mantenduko ditugu igogailuak jarri edo etxeko irisgarritasuna hobetzeko edo Eusko Jaurlaritzarekin batera energia eraginkortasuna hobetzeko laguntzak lortzeko lan egin. Horrela herritarrak pozik egongo dira euren etxean gera daitezkeelako.

Gainera, herri txikia garenez, ezin dugu hedapen handia izan. Beraz, etxebizitza hutsak izan behar ditugu kontuan. Azterketa bat egin beharko litzateke. Erroldarik ez duten etxebizitzak datuak ditugu, baina horrek ez du esan nahi hutsik daudenik.

Udala eta Eusko Jaurlaritzaren elkarlana egin beharko dugu neurri edo pizgarri batzuk zehaztu eta etxebizitza huts horiek alokairuko merkatura ateratzeko. Eta horrek Lasarte-Oriako alokairuen jaitziera eragin dezake etorkizunean.

Eta azkenik, HAPO Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean onarpena dugu. Horrek Kotxerasesko auzoa eraikitzea ahalbideratuko du. 900 etxebizitza izango dira, horietatik 180 alokairuko Babes Ofizialeko Etxeak izango dira. Horiek Eusko Jaurlaritzaren menpe egongo dira.

Bestetik, beste 180 etxebizitza tasatu ere egingo lirateke. Gainerakoak libreak izango dira. Herrian bere diru sarrerengatik etxebizitza tasatu edo babestua

"ALKATETZA HARTU ETA ESPERO EZ GENION EGOERA BATI AURRE EGIN BEHAR IZAN GENION"

"SORTU DIREN ARAZOEI AURRE EGINDA ERE, 2019KO PROGRAMAREN %85 GAUZATU DUGU"



Agustin Valdivia PSE-EEko alkategaia eta Susana Garcia Chueca Batzar Nagusietako hautagaia azokan izan ziren. TXINTXARRI



Alderdi sozialistako alkategaiak hiru urte eta erdi egin ditu alkate modura. Urte horietako esperientzia, udal kudeaketa, master bat izan dela uste du. TXINTXARRI

edo babestua eskuratu ezin duten herritarrak badira eta bere herrian geratu eta bizimodua egiteko eskubidea dute horiek ere. Eta gaur egun eskaintza falta dago.

Hori guztia ez da egiten urte eta erdian, epe ertaineko plana da eta HAPOaren onarpenaren eta Eusko Jaurlaritzaren araudiaren zain gaude.

Gainera, gazteei gurasoen etxea uztea ahalbideratuko duen 88 zuzkidura bizitoki egingo dira egungo kiroldgia dagoen eremuan Sei hilabete daramatza Eusko Jaurlaritzarekin lanean horretarako. Kohesio soziala bilatzen duen eraikuntza izango da.

Haurtzaindegi berria eta Emakumeen Etxea ere bertan izango dira; eta udaltzainen egoitza ere inguru horretara lekualdatuko dugu.

Horrez gain, programan dituzuen proposamenetatik zeintzuk nabarmenduko zenituzke?

Kiroldgiaren ostean, Institutotik Zabaleta Berrira eta Kale

Nagusiatik Goikaleko gainera doazen igogailuak ditut buruan.

Horrela pandemiarekin galdu genuen urte ete hori errematatuko eta 2019-2023 urteko programa osatuko genuke.

Horrez gain, amaitzeaz dagoen legealdian, hiru plan landu ditugu: Mugikortasun Jasangarrirako Plana, Energiaren eta Klimaren Plana eta HAPO. Orain horiek gauzatu behar dira.

Ibilbide orri bat egin dugu. Epe ertainerako planak dira eta ez dira legealdi bakarrera mugatzen. Pixkanaka horiek garatzeko pausoak emango ditugu.

Zerrendako lehen postuetan egungo zinegotziak daude. Haiengan uste osoa duzu.

Konfiantza handia dut nire taldean.

Eurentzat niretzat baino gogorragoa izan da legealdia. Jesus Zaballosekin guztiak aterki baten azpian ginen eta babestuak sentitzen ginen. Nirekin zinegotzi izatea ez da hain erraza izan. Nik arlo bakoitzeko buruak babak eltzetik ateratzea nahi nuen,

eurek erabakiak hartzea eta erantzule izatea nahi izan dut.

Herritarrak lasai egon daitezke. Herria ezagutzen dute eta esperientzia dute. Herriarengatik egiten dute lan eta herria maitatzen dute, nik bezala. Beraz, lanean jarraitzea merezi dute.

Legealdi honetan izan ditugun arazoekin gure proiektuak aurrera eraman ahal izan ditugu; haizea aldeko izanda, edonork daki zer egiteko gai izango garen.

2019ko hauteskundeetan bederatzigarren zinegotzia lortzeko zorian izan zineten, aurtengoan posible ikusten duzue?

Herritarrek guregan uste osoa izatea espero dut. Bederatzigarren zinegotzia lortuz gero, aurkeztutako proposamen guztiak aurrera eramateko gai izango gara arazorik gabe. Guk zehaztuko dugu bakoitzaren errotia.

Horrela ez bada edo kopurua murrizten bada, negoziatu beharko dugu eta akordioak egin beharko ditugu; beti egin dugun bezala. **Hauteskunde ostean, 2011. urteko EH Bildu-EAJ paktua berriro ematea posible ikusten duzue?**

Zenbakiak ahalbideratzen badute, gerta daiteke. Ezin da inoiz jakin hauteskunde ostean zer gertatuko den.

Baina gure proiektua da herritarrei balio behar diena. Beste alderdi batek gobernua hartu zuenean lau urtez udala gelditu egon zen. Beraz, herritarrek bi aukera dituzte, PSE-EE edo udala guztiz gelditu egotea.

Azken asteetan Somoto auziko akordioaren berri izan dugu. Zein iritzi duzu?

"LEGEALDI HONETAN LANDU DITUGUN HIRU PLANAK GAUZATUKO DITUGU. IBILBIDE ORRI BAT EGIN DUGU"

"SOMOTO AUZIA GAINDITU BEHAR DUGULA USTE DUT. GEROZTIK HIRU ALKATE IZAN GARA KARGUAN"

Gertutik

Liburu bat?

La Reina Roja (Juan Gomez-Jurado).

Filme bat?

Interstellar (C. Nolan).

Musikari bat?

Fangoria.

Zaletasun bat?

Sukaldiritza.

Pertsona erreferente bat?

Nire gurasoak.

Herriko toki gogokoena?

Okendo plaza eta inguruak.

Oporretara joatekotan, nora?

Cascante.

Zer eramango zenuke uharte batera?

Nire familia.

Auzi horretan epaitzen direnak 2000. urtean hasi ziren eta gaia behingoz gainditu behar dugula uste dut. Ez zen gertatu behar eta epaia dena delakoa izango da.

Geroztik hiru alkate izan gara karguan: Jesus Zaballos, Pablo Barrio eta ni, baina lau legealdi ere. Udalak 2010ean neurriak hartu zituen horrelako zerbitu berriro gerta ez dadin.

Eragin al dezake horrek hauteskundeetan? Eta auzo berriek edo bozka ematen duten belaunaldi berriek?

Guk nola lan egiten dugun erakutsi dugu legealdi honetan eta ez dugu hauteskundeetan Somoto auziak eragitea espero.

Auzo berriei dagokionez, ez da kanpoko jende asko etorri. Herriko jendea auzoz aldatu dela esan daiteke. Kopuru horrek ez luke eragin handirik izan behar. Ez dakigu zein ideologiakoak diren ere, baina esandakoa, ez dut uste euren bozen eragina hain handia izango denik. Beti egon dira belaunaldi berriak. Baina arazoa abstentzioa izaten da kasu honetan. Nik herritar guztiak botoa ematea nahiko nuke; horrela gure herriko errealitatea ikusiko litzateke. Zenbat eta herritar gehiago, emaitza garbiagoak. Gazteek boza ez emateak kezkatzen nau. Botoa ematea eskubide bat da, ez da beharra, baina erakundeei zure eskaerak egiteko modu bat da. Nik gazteak parte hartzera animatzen ditut.



"Edozer gerta daiteke; aukera guztiak daude mahaigainean"

ESTI GARMENDIA ARRIETA EH BILDU-KO ALKATEGAIA

Bere hautagaitza "prozesu baten emaitza" izan dela nabarmendu du. Herriarekin eta herriarentzat jarraitu nahi du lanean, eta horretarako behar diren akordioak egiteko prest agertu da

Maddi Zaldua

Lasarte-Orian hazi, hezi, lan egin eta bertan eraiki du bere familia eta ingurua Esti Garmendia Arrietak (Lasarte-Oria, 1976). Bere herriak alkategai emakumezkoa berriro izateko nahiak bultzatuta onartu du hauteskunde hauetan EH Bilduren zerrendaburu izatea, eta datozen lau urteetan lanean jarraitzeko prest agertu da. Ez daki zein eserlekutatik, baina zerbaite argi badu, bere bidea orain arte bezala herriarentzat eta herritarrekin egingo duela da.

EH Bilduren zinegotzi izan zara amaitzar den legealdi honetan. Zerk bultzatu zaitu aurten zerrendaburu gisa aurkeztera?

Ni alkategai izatea talde lanean oinarritutako prozesu baten emaitza izan da, legealdi honi jarraipena eman nahi dion prozesuarena. Erabaki hau ez da egun batetik bestera hartutakoa. Legealdi honen erdialdean hasi ginen datorrenari begirako lanketa egiten. Prozesu baten barruan gertatu da, bideak ekarri duen ondorioetako bat. Azpimarratu nahi dut taldea aurkezten garela;

ni naiz kasu honetan zerrendaburu hauteskundearen egiturak hala eskatzen duelako, baina ekipoa gara.

Emakume bat alkategai; lau hautagaien artean, bakarra. Zein esanahi eta garrantzia du horrek?

EH Bilduren helburua zen eta nirea, pertsonala ere bai. Kargua onartzerakoan pisu handia izan du horrek nigan. Nahi nuen emakume ordezkari bat. Alkategai aurkeztu diren beste hiru alderdietako zerrendaburuak gizonezkoak dira, eta horrek ere adierazten du zerbaite. Emakume

batek horrelako pausoa ematea ez da hain erraza, ez bada, aurretik udalgintzan aritu edo eremu horretatik gertu ibili.

Zergatik ez da erraza?

Atzeko lanetan aritzen garelako beti, ertzetan. Oraindik ere kosta egiten da emakume bat ardura karguetan irudikatzea. Lantaldeetan, familietan, ordea, oso presente gaude emakumeok. Parte hartzearen zati handi bat gurea da, baina ordezkari, aldiz, ez da horren erakusle. Udalgintza, gainera, oso erakunde maskulinoa da; egiteko moduak, erabakitze moduak, bozeramailetza... eta hori ez dator bat gure alderdiaren egiteko moduarekin.

Herri eragileetako jarduna feministagoa da. Hala konprobatu ahal izan dut herrigintzan aritu naizenean, baina iristen zara udalera eta topatzen duzu bestelakoa den eredu.

'Maite duzun Lasarte-Oria egingo dugu' da zuen kanpainaren leloa. Maite duzun herria eraikitze bide egingo duzu?

Bai. Ez dago lelo hoberik. Udalak lan egin behar du herritarrentzat, baina herritarrekin. Maite dut Lasarte-Oria eta gaur egun, beste harrotasun batekin esaten dut bertakoa naizela. Maite dugun herriaren alde egingo dugu lan, konpromiso hori bihotzetik hartuz. **Zer aldatu da orain lasarteoriatarra zarelako beste harrotasun batez esateko?**

Gure herriak ez du zerikusirik beste herri askorekin. Funtzionarazten duten eragile guztiak herriaren nortasuna eraikitzen dute. Ni sentitzen naiz betidanik eta gaurdaino horren parte eta jarraitu nahi dut horrela. Nire bizitza Lasarte-Orian egin nahi dut. Pentsa, herritik kanpo lan egitea egokitu zaidanean, lan horiek utzi eta hemen bilatu izan dut ogibidea. Lasarte-Orian ikasi dut, bertan bizi naiz, nire familia eta lagunak hemen daude... Hau da nire herria.

Udal Gobernuaren zein balorazio egiten duzu?

Aitortu behar da ez dela ohiko legealdi bat izan; pandemia tarteko, zaila izan da. Ez dakit aurrekoak nolakoak izan diren, nik azken hau ezagutu dut, eta hori esan dezaket. Udal gobernuaren noraezean ibili da momentu askotan; jarduerak aurrera ateratzeko ezgaitasuna antzeman dut, eta kudeaketan blokeo handia sentitu.

Gu legealdi osoan zehar aritu gara, etengabe, proposamenak egiten. Herritarren bizitzak

hobetzeko edozein neurriren alde lanean, gainerako alderdiekin adostasunetara iristeko prest agertu gara, eta beti ez dituzte gure proposamenak kontuan izan. Legealdi hasieran aldaketa handi bat eman zen udal gobernuan [alkate aldaketa], eta hori ere aintzat hartu behar da.

Eta nolako izan da azken lau urteetako zuen balantzea?

Guk ere aldaketak izan ditugu lantaldean. Sekulako ilusio, gogo eta indarrarekin ekin genion bideari, eta barne mailan izugarriko antolaketa lana sustatu dugu. Uneoro herritarrekin, herri eragileekin elkartu, proposamenak jaso eta haiekin guztiaren egoteko apustua egin dugu, nahiz eta pandemiak dezente zaildu zuen hori. Oso gustura aritu gara elkarrekin lanean. Gelditu dira lanak egiteko, baina hemen gaude, horiei jarraipena emateko prest.

Babestua eta zaindua sentitu naiz. Herriarentzat onena zena uste genuena borrokatu dugu.

Zer nolako lehia aurreikusten duzu?

Ez daukat gertatuko dena jakiteko modurik. Dakidana da, legealdiz legealdi EH Bilduren emaitzak hazten joan direla, eta hauteskunde hauetan ere goranzko joera hori mantentzea espero dut. Herria hazi egin da, biztanle berriak ditugu eta horrek ere eragin bat izango du aurtengo bozketan. Babes handia jaso dut hautagaitzaren berri eman genuenetik, baina horri ere zuzentzia begiratzen diot; ikusiko da hilaren 28an zein den emaitza erreala. Datorrenari erantzungo diogu.

Ana Urchueguiak funts publikoak bidegabe erabili zituela jakin dugu berriki. Legealdi honen amaieran edo berriaren atarian iritsi da hori.

Herritarroei ez zaigu gustatzen gure ordezkariak gure dirua behar ez bezala erabiltzea.

"EH BILDU-REN HELBURUETAKO BAT ZEN ALKATEGAIA EMAKUMEA IZATEA, ETA NIREA ERE BAI"

"UDAL GOBERNUA NORAEZEAN IBILI DA MOMENTU ASKOTAN; KUDEAKETAN BLOKEOA SENTITU DUT"



Esti Garmendia alkategaia alderdikideekin batera herritarrei eskuorriak banatzen. TXINTXARRI



Esti Garmendi Arrieta, udaleko pleno aretoan, Lasarte-Oriaren armariaren aurrean. TXINTXARRI

Izan dezake gertakari horrek eraginik hauteskunde hauetan?

Gertatu denaren ondoren, eta erantzukizun batzuk oraindik argitzeke geratu direnez, pentsatzen dut PSE-EEren bozkatzaila batzuk haserre eta dezepzionatuta egon daitezkeela. Ikusi beharko da zer gertatzen den.

Gaur egun EH Bilduk lau zinegotzi ditu. Zein helburu duzue hauteskunderi begira?

Ordezkaritza handitzea. Esan bezala, espero dugu herritarren babesak gorantz egitea, eta horrek gure zinegotzi taldea handitzea ekar dezake. Pozgarria litzateke hori, horrek ahalbidetuko baitu eragiteko gaitasuna handiagoa izatea.

2011n gertatu zena errepikatzen aukerarik ikusten duzu, hau da gobernatzeko oposizioko alderdiek akordioak lortzea?

Aukera bat da. Hainbat eszenatokiren azterketa egin dugu, jarri ditugu gerta daitezkeen egoera ezberdinak mahai gainean, baina halere ezin dugu jakin zer gertatuko den. Edozer gerta

daiteke; akordioa egitea, oposizioan mantentzea, eta orain arte bezala lau zinegotziko taldea izaten jarraitzea ere bai. Ikusiko da; aukera guztiak daude mahaigainean.

Herritarren bizitza hobetuko duten neurri eta proposamen guztietan parte hartzea da helburua eta horretarako akordioak egitea ona bada, gu horren alde. Norekin beharrean, zertarako izango da begiratu beharrekoa.

Gero eta biztanle gehiago ditu Lasarte-Oriak. Auzo berrietara bizitzera etorri direnek zein eragin izan dezakete hauteskunderietan?

Hori ere ezin da jakin. Orain lau urte beste egoera batean geunden. Bozka mahaietako tendentziak zeintzuk ziren ikus zitezkeen, baina orain ezin da jakin boza berri horiek norentzat izan daitezkeen. **Eta azken lau urte hauetan boza emateko eskubidea bereganatu duten gazteek zein rol joki dezakete?**

Gazteak ere EH Bildu osatzen duten lantaldeen parte izan daitezkeen saiatzen gara. Horietan ordezkaritza izan dezaten nahi dugu eta euren parte hartzea

modu naturalean gertatzea. Horiek entzuteko gaitasuna eduki behar dugu eta euren kezkek azaltzeko espazioa eman behar diegu, baina konponbidearen parte ere izan behar dute.

EH Bilduko zerrendan ikus ditzakegu erroka errepikatuko duten herritarrak, baina berriak ere bai. Nolako zerrenda da zuena?

Herrigintzan, Lasarte-Oriako eragileetan aritu diren herritarrak dira, eta, orain, udalgintzatik ere eragiteko saltoa eman dutenak. Herriaren bizitzarekin kezka adierazi dugun lasarteoriatarak gara; lanerako prest gaudenak. **2023-2027 legegaldia begira, zeintzuk dira Lasarte-Oriaren erroka nagusiak?** Gure herrian oraindik ez dira oinarriko eskubideak bermatzen, eta hauek babestu nahi ditugu. Herritar guztiek beraien bizi proiektuak modu duinean eta gozatzuz garatzeko aukera izan dezatela da erroka nagusia.

Hortik abiatuta osatu duzue zuen programa?

Bai. Hamabi tituluren gainean landu genuen programa, baina, hori sortzeko garaian, horiek

guztiak lau ildo nagusitan bildu ditugu: Herrian ikasi, lan eta bizi; Herri kohesioa; Bizitza bizigarriak eta Herritarren udala.

Berdintasunaren arloaren gabeziak agerian utzi ditu legegaldi honek. Nola begiratu dio EH Bilduk horri? Izango da zuen lehentasunetako bat?

Udalan ez dago berdintasun teknikaririk ezta sailik ere. Hori da gure lehentasuna; gure eskakizun nagusietako bat izan da legegaldi honetan. Eman ditugu zenbait urrats. Berdintasun mahai

"HERRITARREN OINARRIZKO ESKUBIDEAK BABESTU NAHI DITUGU"

"HERRITARREKIN ERABAKIKO DITUGU EGINBEHARRAK; GUREKIN ETA EZBERDINEKIN"

Gertutik

Liburu bat?

Zomorrotu (Aintzane Usandizaga).

Filme bat?

Avatar (James Cameron).

Musikari bat?

El Drogas.

Zaletasun bat?

Antzerkia egitea.

Pertsona erreferente bat?

Nitaz erditu zen ama.

Herriko toki gogokoena?

Atsotabarreko zelaian dagoen enbor moztua.

Oporretara joatekotan, nora?

Senegalera.

Zer eramango zenuke uharte batera?

Familia eta lagunak.

bat jarri da martxan eta diagnosi bat ere egiten ari dira... Baina hutsuneak daude oraindik. Ez dut berdintasunik gabeko bizitarik ulertzen.

Enplegua eta jarduera ekonomikoa dira herritarren kezka nagusietako bi. Nola susta daitezke?

Sortzen ditugun lanpostuekin bizi daitezke gure herritarrak? Aukera dute herrian bizi eta bertan lan egiteko? Bizitza eta lana herrian egin nahi duenak badu horretarako aukerarik? Uste dut horretarako okasioa egon behar dela, baina, horretarako azterketa sakona egin behar da. Beste edozein arlotan bezala, uneko egoeraren argazki gordina behar da, horren gainean diagnosi eta plangintza bat egiteko. Nabarmendu nahi dut lau urte hauetan Lasarte-Oriako enplegu mahaia ez dela bildu.

Eta alkatetza lortuz gero, zein da hartuko zenukeen lehen neurria?

Zein galdera zaila. Aurrekoaren erantzunaren haritik, esango nuke herriaren benetako argazki bat behar dugula, eguneratua eta herritarrekin egin. Horrekin beharrik non dauden ikusi, eta lehentasunak markatuko nituzke. Dena da garrantzitsua, baina gauza batzuk beste batzuk baino lehenago egin beharko dira. Herritarrekin erabakiko ditugu horiek denak. Nola gauden, nora goazen eta horra iristeko zer egin behar dugun izango da aztertu beharrekoa. Hori guztia lasarteoriatarrekin; gureekin eta ezberdinekin.



"Laugarren zinegotzia lortzen saiatuko gara"

JON ANTORDOKI REKONDO EAJ-KO ALKATEGAIA

Lasarte-Oriako hurrengo alkatea bera bada, beste ezer baino lehen udaletxeko langileekin elkartzeko da, izan ditzaketen arazoak entzun eta haien lana antolatzeko modua aldatzeko

Iñigo Gonzalez Sarobe

Hautagaitza errepikatuko duen zerrendaburu bakarra izango da Jon Antxordoki (Lasarte-Oria, 1982). 2019ko emaitza berdintzea eta ahal dela hobetzea du helburu, talde "berritu eta gazte" bat gidatuta.

Zerk animatu zaitu aurkeztera?

Gainerako alderdiek ez dakit nola egiten duten, baina EAJn ez du hautagaiak aurkezten bere burua. Gure kasuan, Lasarte-Oriako Batzokiak erabakitzen du nork nahi duen ardura hori hartzea, eta, pertsona horrek baietz esaten

badu, Gipuzkoa Buru Batzarrak berresten du erabakia gero.

Proposamena jaso bezain laster esan zenuen baietz?

Pentsatu izan dut noizbait amaitzear dagoena izango zela nire azken legegaldia, udaletxean aritzeaz gain beste gauza askotan nabilelako eta denboraz ez horren liberatuta, baina nahikoa azkar hartu nuen erabakia. Gogoz eta ilusioz ari naiz lanean, pozik eta eskertuta nago aukeragatik. Beste alderdiekin alderatuta berandu hartu genuen erabakia, baina lasai geunden denok.

"Gaztetasuna eta eskarmentua" uztartu dituzue zerrendan. Lehen postuetan kide berri gehiago daude esperientziadunak baino.

Taldea berritu egin dugu, pentsatu dugulako iritsi dela horretarako momentua. Estitxu Alkortak hogeituzero zeramatzen zinegotzi eta erretiratzeko gogoia zuen. Pena handiz, baina erabaki bera hartu du Boris Nogalesek, nekatuta egoteaz gain herrigintzari ezin ziolako lehen bezainbeste denbora eskaini, bere lanagatik.

Pertsona gazteak dira herriaren etorkizuna, zalantzarik gabe.

Mundu honetan murgiltzea eta horri buruz ikastea nahi dugu, alderdian ere erreleboa har dezaten. Ez dit beldurrik ematen lehen postuetan doazen batzuk berriak eta gazteak izatea, talde zabala dugulako herrian nahiz Gipuzkoan. Bizkarra babestuta dugu zentzu horretan.

Ate joka ditugu hauteskundeak eta amaitzear da legegaldia. Nola aritu da udal gobernua?

Paralisi egoera batean egon da; gauzak egin ditu, dena ez da txarra izan, baina askotan berandu aritu da, aitzakiak jarrita... Antolakuntza eta lidergoa falta izan zaie. Duela bi hilabetera arte pentsatzen nuen Correos inguruko [Geltoki kalea] espaloiak berritu zituela. Orduz geroztik eta hauteskundeak hurbildu diren heinean, ahalik eta zulo gehien estaltzen saiatu da, belarra motz-motz uzten.

Eta nola lan egin du EAJk?

Guk gurea egin dugu, udal gobernuarekin adostasun eta akordiotara iritsi, baina oposizioa egin ere bai. Irudipena dut itzain aritu garela, akuilua hartu eta haien atzetik, lana egin eta hitzartutakoak aurrera eramateko eskatzen etengabe, eta, hala ere, konpromiso ugari ez dituzte martxan jarri. Gorputz txarra utzi dit horrek; negoziatzea eta tratuan aritzea asko gustatzen zait eta emandako hitza ez betetzeak amorratu egiten nau. **Bigarren legegaldiz jarraian, udaleko Euskara sailaren burua izan zara.**

Oso-oso gustura aritu naiz saileko teknikariekin lanean, taldean bikain aritzen dira. Harreman goxoa dugu, familia txiki bat osatu dugu. Egia da legegaldi honetan aldaketak izan ditugula, Zerbitzuko burua zen Iñaki Arruti Gipuzkoako Foru Aldundiak *fitxatu* zuelako. Aitortza moduko bat izan zen departamentuarentzat, langile apartak ditugula erakusten duelako. Maite Zipitria etorri zen gero eta duela hiru hilabetera arte ederki aritu gara berarekin. Orain etxeko arduradun bat dugu, Aitor Unanue.

Egin ditugunetatik amaitu berri den XV. Udaltop aipatuko nuke, eta, jakina, Euskararen 10. Maratoialdia. Euskal geruza ikaragarri bati esker atera dugu aurrera, ez guk bakarrik. Domina herri osoari jarri behar diogu. **Garbi utzi duzu oso gustura aritu zarela Euskara sailean. Aukera izango bazenu, jarraituko zenuke?**

Ez dakit, ikusiko dugu zer gertatzen den. Esan bezala, oso eroso aritu naiz eta ez nuke beste sail baten ardura izateagatik aldatuko. 2015ean galdetu izan bazenit, Zerbitzu Publikoetara joango nintzatekeela esango nizuke ziur asko; betidanik gustatu izan zaizkit obrak.

2019ko hauteskundeetan hiru zinegotzi lortu zenituzten. Aurtengo helburua zein da?

Laugarrena lortzen saiatzea.

Azken bi legegaldietan bezala PSE-EEekin akordioa egingo duzue ala beste alderdiren batekin?

Herriarentzat ona bada berdin zait tratua norekin egin. Goitik zer esaten diguten, horrek ere garrantzia izango du.

Ana Urchueguiaren aferak eragin du sozialisten eta zuen arteko harremanean? Balizko akordio bat baldintza dezake?

Lasarte-Oriako taldeak baino, Gipuzkoako eta Euskadiko PSE-EEK eskatu behar die barkamena herritarrei. Patxi Lopez lehendakari ohiak esan zuena, kazetariak zutela interes berezia Ana Urchuegia kaltetzeko... Iñigo Urkullu ez du ikusten horretan sartzen, adibidez. Etxe handi guztietan daude bekatariak; gurean gertatu denean, alderditik bota dugu pertsona eta gero bekatuari buruz galdetu. PSE-EEK alderantzizko bidea egin du.

EAJren hauteskunde programa herritarrekin batera egin duzue.

Hori da, eta ez etxeko jendearekin bakarrik. Gure pentsakeratik gertu egon ez daitezkeenekin ere elkartu gara. Uste dut hori dela bidea ondorio onak atera eta hobetzeko; gertukoek esaten dizute ederki ari zarela lanean eta dena ongi egiten duzula.

Aurreko legegaldiko programako proposamen asko sartu ditugu programan, antzekoa da, udal gobernuarekin hitzartu arren

"TALDEA BERRITU EGIN DUGU, HORRETARAKO UNEA IRITSI DELAKO; IKASI ETA ERRELEBOA HARTU BEHAR DUTE"

"ITZAIN ARITU GARA UDAL GOBERNUAREKIN, AKUILUAREKIN ATZETIK, LAN EGITEKO ESKATZEN ETENGABE"



Eskuorriak eta boligrafoak banatu zituen alkategai jeltzaleak hilaren 17ko azokan, Andatza plazan. TXINTXARRI



Lasarte-Oriako Batzokiak alkategai izatea proposatu ostean, "nahikoa azkar" esan zuen baietz Antxor dokik. "Gogoz eta ilusioz" jarraituko du lanean. TXINTXARRI

egitasmo horietako asko ez dituelako aurrera eraman.

Enplegua izan ohi da beti herritarren kezka nagusietako bat.

Herrian bizi bakarrik ez, lan ere egin behar dugu eta uste dut beharrezkoa dela industrialdea berritzea. Udalak horretan jarri behar du eta egoera nolakoa den ikertu, hasteko.

Koberasen kultur etxe bat eraikitzea eskatu izan duzue. Hori aldarrikatzen jarraituko duzue?

Kultur etxea baino, kulturgune bat egokiagoa iruditzen zaigu. Apropo da herri kohesioa indartzeko, Kotxeras eta ondoko auzoak erdigunearekin batzeko.

Zer gehiago egin nahi duzue?

Plazaola bidearekin gertatzen dena konpondu. Inori ez litzaioke buruan sartuko Donostiako Alderdi Eder parkeko eremu bat pertsona baten jabetzakoa izatea, ezta? Bada, zergatik Plazaolan bai? Oraindik bereak ez diren partzelak erosi behar ditu udalak.

Bestalde, oinezkoentzat jarri behar dugu Kale Nagusia, ez bat-batean ziur asko; aldaketaren hastapenetan aukera emango

nieke autobus eta anbulantziei bertatik pasatzeko, adibidez. Mugikortasunari lotuta, baita ere, auzo aldapatsuetan bizi diren bizilagun guztientzako igogailuak jarri behar ditugu.

Berrikuntza moduan, animalien ongizatea bermatzeko premia jaso dugu programan. Lege berriarekin neurri gehiago jarri beharko ditu martxan udalak. Parke bat egitea proposatuko dugu haientzat; zenbait gune apropos identifikatuta ditugu.

Horrez guztiaz gain, uste dut ez dugula ahaztu behar baserriarrez; haiek ere lasarteoriatarak dira. Garrantzitsua da nora goazen zehaztea, baina nondik gatozen gogoratzea ere bai. Ahal dugun guztian lagunduko diegu.

Udal gobernuarekin kritikako izan zarete Atsobakarren kirol eremua egiteko proiektuaren harira. 250.000 euroko dirulaguntza bat galdu izana leporatu diezue obrak 2020an ez hasi izanagatik.

Kudeaketa txarraren ondorioa da hori ere, dirulaguntza eskatzen dugulako proiektua

zehaztuta izan baino lehen; guk beste era batera egingo genuke hori. Herritarrek ez dakite horrelako kontuetan dirua gal dezakeela udalak, eta, noski, deialdien bidez finantzatzen ez duena beste nonbaitetik atera behar du gero.

Albiste izan dira berriki Hipodromo etorbideko 39na pisu nahiz lokalak eta lau garajeak. Udalak lehiaketa baten bidez besterentzeko prozesuari ekin dio, kiroldegi berria finantzatu ahal izateko. Zer iruditzen zaizu?

Bere garaian, etxebizitza horiek saltzearen alde eta beste batzuk beste toki batean eraikitzearen alde egin genuen, Alokabideren bidez babes ofizialeko alokairu moduan jartzeko. Era berean, kiroldegi berria oso premiazkoa da herritarrentzat, zaharkitua dago eta txiki geratu da. Horrelako proiektu bat ezin du kreditu bidez bakarrik finantzatu udalak, diru iturri gehiago behar ditu, eta Hipodromo etorbidekoa da aukera bakarra. Kiroldegiaren zati bat horrela finantzatzearen alde gaude.

Hori esanda, oso gaizki iruditu zait kanpaina betean iragarri izana hori, elektoralismo hutsa da. Pil-pilean dauden beste gai batzuek ez hitz egiteko egin du hori udal gobernuak.

Berdintasun teknikariaren gaia nola kudeatuko luke EAJK?

Berdintasun teknikari bat behar dugu aurretik eskatu izan dugun baldintzetan, ez formakuntza duen gizarte langile bat. Deskafeinatua izan da udal gobernuak egin duena. Uste dut arazo larri bat duela

"PROGRAMA EZ DUGU ETXEOEKIN SOILIK PRESTATU; USTE DUT HORI DELA HOBETZEKO BIDEA"

"BEHARREZKOA DA LASARTE-ORIAKO INDUSTRIALDEA BERRITZEA, EGOERA ZEIN DEN IKERTZEA"

Gertutik

Liburu bat?

Palabra de Iñaki (Iñaki Anasagasti).

Filme bat?

Secretariat (Randall Wallace).

Musikari bat?

Xabier Lete eta Erramun Martikorena. Garaikideago bat, En Tol Sarmiento taldea.

Zaletasun bat?

Zaldiak.

Pertsona erreferente bat?

Lester Piggott jockeya.

Herriko toki gogokoena?

Brigitarren komentu ingurua.

Oporretara joatekotan, nora?

Etxekoekin batera banao, edozein tokitara.

Zer eramango zenuke uharte batera?

Barku bat, bueltan etortzeko.

Gizarte Zerbitzuekin, oro har. Kudeaketa oso eskasa da.

HAPO Hiri Antolamendurako Plan Orokor berria prest dago. Gustura dago EAJ emaitzarekin?

Ez. Negoziazio amaiezina izan ditugu PSE-EErekin, ezin akordioetara iritsi. Kotxerasen, Oria ibaiaren ondoan hamabost pisuko etxeak eraikitzea astakeria bat da. Bestalde, Oria Gaineko eremuan eraikitzea aurreikusten duten alokairu sozialeko ehun etxebizitzak ezin dira isolatuta geratu. Garaipen handi gisa saldu dute PSE-EEK eta ELOPek, baina legea bete besterik ez dute egin. **Alkate izango bazina, zein litzateke hartuki zenukeen lehen neurria?** Udaletxe langileekin bilera bat egingo nuke eta esateko duten guztia entzun. Irabazi asmorik gabekoa, baina enpresa bat da udala azken finean, eta kudeatzeko ereduak halakoa behar luke. Langile fin asko ditugu baina erreta daude. Gainera, estabilizazioa falta da, aldi baterakoak dira lanaldi asko.

Antolaketa plan oso egoki bat onartu du udalak legealdi honetan, baina, beste behin, kudeaketa da arazoa. Langileei proposamena erakusteko bilera bat egin zuen, baina galderarik onartu gabe. Surrealista da. Osasungarria da batu eta esan beharrekoak aurpegira esatea.



"Emaitza oso antzekoa izango da, zinegotzi bat gorabehera"

MIGUEL ANGEL TOLOSA AVELLINO ELKARREKIN-PODEMOS-EKO ALKATEGAIA

Udal hauteskunde hauetarako prestatzen ari zela, Tania Rodriguezek utzitako zinegotzi kargua hartu zuen 2022an. Aurretik, alderdi barruko ardurak izan ditu EAEn eta Gipuzkoan

Maitane Aldanondo

Lau urtez Katalunian egon ondoren, gaztarotik bizitoki izandako Argentinara bueltatzeko asmoz iritsi zen 2004. urtean Miguel Angel Tolosa Avellino (Montevideo, Uruguai; 1954) Lasarte-Oriara. Joateko unea iristean, ordea, hemen gelditzea erabaki zuen emaztea eta bi semeekin. Gazteenaren eskutik Podemoseko bilera batera joan zen 2015ean, eta zortzi urte geroago alderdiaren alkategaia da. Kazetaria Zumaburu kaleko lokalera iristean, agurtu, eta berehala bizitzako lehen

elkarrizketa duela aitortu dio. Hortik aurrera, aho bizarririk gabe erantzun ditu galdera guztiak.

Urtebetez zinegotzia izan zara. Nolako bizipena izan da?

Oso ona. Hauteskunde hauetarako prestatzen ari nintzen, beraz, ondo etorri zait guztiaren berri izateko; harritu nauten gauzak topatu ditut. Laburra, bizia, oso ona eta pozgarria izan da, asko eskertzen ditut udal kudeaketari emandako orduak.

Zergatik eman duzu pausoa?

Prest nago eta gustatzen zait. Lasarte-Oriak kokapen geografiko

ona du, bizitzeko leku polita da, eta jendeak eroso bizi behar du. Semeak hemen biziko dira eta bizigarriago izatea nahi dut. Ez dut espektatiba ekonomikorik, asmoa publikoa defendatzea da. Kontulari publikoa naiz, bi semeak ingeniari aeronautikoak dira unibertsitate publikoan ikasita, maskuriko minbizia atzeman eta ebakuntza egin zidaten publikoan, baita bihotzeko ebakuntza ere. Sektore publikorik gabe ezinezkoa litzateke; eta barrutik defendatu behar da.

Erraza izan al zen erabakia hartzea?

Bai, 2020an erabaki nuen. Ez nuen zerrendaburu izatea espero, zinegotzi baizik; baina ez dit beldurrik ematen. Podemosen arauetako bat da zortzi urte osatzean erreleboa egin behar dela. Aurkeztu nintzen eta ez nuen aurkaritarik izan; izena emandakoen %40ak bozkatuta, abstentzio bakarra izan zen.

Egunerokoa aldatuko al dizu?

Ez dut uste. Egunero udaletxera joaten naiz, goiz osoa eta arratsaldearen parte bat eskaintzen diot.

Hiru zinegotzi izan zenituzten 2015ean; bi, 2019an. Zer emaitza aurreikusten duzue?

Gure helburua, gutxienez, azken hauteskundeetan baino bozka bat gehiago lortzea da, errepikatzea. Hirugarren zinegotzia jomugan dugu, nahiz eta gure esku ez dauden baldintzen arabera izango dela uste dugun, eta gobernatzeko nahia ere badugu.

Gainerako alderdiekin akordioak erdiesteko prest al zaudete?

Bai. Programarekin ados bagaude eta beteko dela ziurtatuko bagenu, publikoa defendatuz eta gardentasunez, ez dugu inorekin akordioa egiteko arazorik. Alderdi batekin bakarka zaila ikusten dut, besterik litzateke hiruko gobernua errepikatuko balitz, eta gardentasunari lotuta, PSE-EEekin, gardentasun falta etengabe aurpegiratu diogu, baina ez genuke arazorik izango. Ezta EH Bildurekin ere, noski. Urchueguia aferak eraginik izan al dezake?

Iraganaren parte dela uste dut, ez dut baloraziorik egingo, baina ez dugu halakorik nahi. Ikusi beharko dugu nola ziurta dezakegun akatsak ez direla errepikatuko. PSE-EE eta, tamalez, udala bera ere, erabat hermetikoak dira; horrenbeste urtez hala gobernatzeak eragin du langileek ere informazioa gordetzea. Sinestezina da zenbat informazio gordetzen den udaletxeko tiraderetan, eta kosta egiten zaie ulertzea informazioa mahai gainean badago eta denok badugu, errazagoa dela akordioak lortzea. Ez diot ardura langileei egozten, baina hori aldatu egin behar da eta zaila da.

Zuen hautagaitza zerrendako zer nabarmenduko zenuke?

Kargua lortzeko aukera dugun hiru hautagaiei dagokienean, nire meritu nagusia ezagutza

eta prestaketa juridiko-administratiboa da. Ez da udalean, baina lagungarria zait. Kudeaketan arreta jartzen dut herritarrek izan daitezen onuradunak eta ez enpresa pribatuak. Kontratu guztiak berrikusten ari naiz eta topatu ditugu aterako diren beste gauza ezatsegin batzuk; ez diot txarrak, baina bai arautu gabeak edo ez argiak. Esaterako, ez zuten gobernu batzordea biltzen eta ez zituzten kontratu txikiak argitaratzen, behartuta egonda ere, zenbait gauza denbora edo langile faltagatik batzuei enkargatzen zaizkie, beti berberei... Davidek [Ares] zortzi urteko eskarmentua du, udaletxeak nola funtzionatzen duen badaki. Letren zaleagoa da, ni zenbakiena, beraz, talde ona osatzen dugula uste dut. Eta Ana Maldonado bere burua prestatzen ari da sartuz gero tamalgarrria den gai bati heltzeko: ez dugu berdintasun teknikaririk PSE-EEk kontrakoa esan arren.

Auzo berriak eta lehen aldiz bozkatuko duten gazteak badira. Horrek zuen emaitzetan eragin dezakeela uste al duzu?

Inflexio puntu batean gaudela uste dut. Gutaz duten ezagutza eta Podemos marka izango dira gure emaitzen arduradun, hein batean. Ezkerraren zati batek ez dio PSE-EEri boza berriro eman nahi, 2015ean guri eman zigun eta 2019an etxean gelditu zen; bozka dezaten sustatzeko gai bagara, emaitza hobea izango dugu. Inkestak dituztenen arabera, auzo berriek alderdi baten alde egingo dute, baina ez dut uste; emaitza oso antzekoa izango da, zinegotzi bat gorabehera.

Zer balantze egiten duzu amaitzear den legealdiaz?

"INFORMAZIOA MAHAI GAINEN BADAGO ETA DENOK BADUGU, ERRAZAGO DA AKORDIOAK LORTZEA"

"HIRUGARREN ZINEGOTZIA JOMUGAN DUGU ETA GOBERNATZEKO NAHIA ERE BADUGU"



David Ares alderdikidearekin batera egon zen azokan Miguel Angel Tolosa beraien proposamenen berri ematen herritarrei. TXINTXARRI



Pademian erretiroa hartu, eta 2023an udal politikara pausoa ematea erabaki zuen; nahi baino lehenago egin behar izan zuen, ordea, iaz bilakatu baitzen zinegotzi. TXINTXARRI

Guretzat trantsizio legealdia izan da eta berriro hasteko prestatzen ari gara. Orain lortuko duguna hurrengo urteen oinarria izango da. Nire ustez, Podemosek alderdi gisa okerre pasatu du. Erakunde osoarekin egin zen sorgin ehiza izugarria da, barne akatsak ere bai. Podemosek lortu du, ideiak dituen eta haziko den alderdi gisa finkatzea eta hauteskundeetan nabaritzea espero dugu. Ikusiko da aurten aliantzekin zer gertatuko den, baina 2027an gobernu izango dugula uste dut, ez dakit PSE-EEekin edo Bildurekin batera. **Iragate garaia izan bada ere, zer ekarpen egin duzue?**

Podemosen ekarpena ez da horrenbeste egin duena, gobernu taldeari egiten utzi ez diona baizik. Alkatearen soldata 2011. urtekora ez itzultzea, proiektu parte hartzaileak, gardentasun saiakera batzuk egitea lortu dugu eta gobernu batzordea berriro elkartzea. Sinesgaitza da Lasarte-Oria ez zela gobernu batzordearekin gobernatzen 2011. urtetik, nahiz eta araudiaren

arabera ezinbestekoa izan. Zergatik? Aktetan jaso egin behar dute zertaz gobernatzen ari diren, eta ohituta daude bulegoan hiruren artean maneiatzen, edo, agian, kafearen tarteetan erabakitzen. Gobernu batzordea badago gai asko hor landuko dira eta oposizioko alderdiek lehenago jakingo dugu zer lantzen ari diren. Horrez gain, kontratuak argitaratzea. Harritu egiten ninduen batzordeetan naturaltasunez entzutea "kontratu hau pertsona honi emango diot eta 5.000 eurokoa izango da, gehiagokoa bada, argitaratu egin behar delako". Enpresa batzuei festa batzuetarako gunea doan ematen zaie, enpresak beste partaideei kobratzen dielako; eta, beste leku batean ezin badu kobratu, dirua emango dion kontratu bat egiten dute. Bultzaka bada ere, gardenago jokatzea lortu dugu. **Zeintzuk dira herriaren erronkak?** 20.000 biztanleko herria izatear dago, muga hori pasatzeak egitura aldaketa dakar udalera eta horretarako prestatu behar

dugu. Udalak betebeharririk gabe ematen dituen zerbitzu batzuk badira, horietarako finantzazioa izango du, baina ondo ematea exijitu behar zaio. Bestalde, Donostiak pairatzen duen presio turistikoari iristen ari da eta pisu turistikoari muga jarri behar zaie. Halaber, kartzelak eta inguruko poligonoak jendea ekarriko du herrira. Etxebizitza erroka garrantzitsua da, eta Etxebizitza Behatokia sortzea adostu genuen PSE-EEekin, jakin nahi dugulako zer gertatzen den. Badago autonomiarekin bizi nahi duen adineko jendea, horregatik egungo kiroldegia dagoen lekuan adinekoentzat eta gazteentzat etxebizitzak egin nahi ditugu, belaunaldi arteko harremanak sustatzeko. Horrek hutsik dauden pisuak alokairuan jartzea eragingo duela uste dugu. Udal barruan, zerbitzuak berriro udalekotzea; azpikontratutako zerbitzu asko daude, negozio partikularrak direnak, eta udalak egiturazko lanpostu bilakatu beharko lituzke. Horiek garrantzitsuenak.

Eta zuen proposamen nagusiak?

Lau ardatz dituzte: Etxebizitza, gardentasuna, udala herriari zabaltzea –herritarrentzat kutxa beltz bat da– eta informazioa eskuragarri jartzea. Alkatearen eta gobernu batzordearen agendak publikoa izan behar dute.

Etxebizitza arloan, PSE-EEekin lortutako akordioan jasotakoaz gain, zer egin nahiko zenukete?

Nahi dugu udalari dagozkion Kotxerako etxebizitzak ez saltzea. Kiroldegia hustean ere,

"2027AN GOBERNUA IZANGO DUGULA USTE DUT, EZ DAKIT PSE-EE-REKIN EDO BILDUREKIN BATERA"

"PSE-EE-K DIOENA DIOELA, BERDINTASUN TEKNIKARIRIK EZ DAUKAGU, ETA BEHARREZKOA DA"

Gertutik

Liburu bat?

Ekonomia politikoari buruzko bat.

Filme bat?

El amor menos pensado (Juan Vera).

Musikari bat?

Charly García.

Zaletasun bat?

Tangoa dantzatzea.

Pertsona erreferente bat?

Ama.

Herriko toki gogokoena?

Etxeko terraza.

Oporretara joatekotan, nora?

Hondartza duen edozein.

Zer eramango zenuke uharte batera?

Emaztea. Semeak ere, baina ez dakit etorri nahiko luketen, kar, kar.

kontu izan beharko dugu Hipodromo etorbideko etxeekin egindakoa errepika ez dezaten: 2006an alokairurako zirela esan zuten eta 2023an saldu egin dituzte. **Berdintasun teknikariaren postua sortzearen aldeko mozioa bateratua babestu zenuten...**

PSE-EEK dioena dioela, berdintasun teknikaririk ez daukagu, eta beharrezkoa da. Ez hitz egiten ahalegintzen naiz, seguruenera mikromatxismo asko eskapatuko zaizkidalako oharkabea; baina justuki horregatik behar dira hori defendatuko duten emakumeak. Naturala da, niri jatorriaren araberrako diskriminazioaz ari direnean gertatzen zait; ez naiz diskriminatuta sentitzen, ez dit eragiten, baina etengabe ikusten dut detaile txikitak. Emakumeen lekuan jarri eta imajina dezaket zer den. Niri min handia egiten zidan gizon matxistez hitz egiten zutenean, interpelatua sentitzen bainintzen; niri begira beharrean arazo estrukturala zela konturatu nintzen arte. Bide bakarra erakundeetatik defendatzea da, goitik begiratuta, ikuspegi osoa hartzen, eta horretarako buru-belarri jardungo duen pertsona bat behar da.

Alkatea bazina, zein litzateke hartuko zenukeen lehen erabakia?

Gobernu batzordearen, alkatearen eta ziur aski teknikariaren agendak publikoa izatea. Bigarrena, kontratuak-eta berrikustea.



Etxebizitza izan du hizpide Miguel Angel Tolosa alkategaiak

ELOPek mitina egin du Brigitarren komentu inguruan. Etxebizitzaren gaia ardatz hitz egin du alderdiko alkategaiak

Txintxarri

Etxebizitzaren gaiaz hitz egin du Lasarte-Oriako ELOPeko alkategai Miguel Angel Tolosak berriki egindako mitinean. Nabarmendu du, Donostiako etxebizitza turistikoaren eskari handiak, salmetarako edota alokairuko etxebizitzaren prezioak igotzea eragiten ari denez, hiriburu horretako bizilagun askok inguruko udalerrietara joan behar izaten dutela bizitzera, gehiegizko prezio horiei aurre egin ezin dietelako. Gaineratu du, presio

horren zati handi bat Lasarte-Oriara iristen ari dela.

Adierazpen horiei jarraiki, adibideak ere eman ditu: "Goiegi, Zabaleta Berri eta Zatarain auzoetan etxebizitza berriak eraiki diren arren, prezioek gora egin dute etengabe". Datuak ere eskaini ditu: "Pandemia aurretik 220.000 eurotan eros zitezkeen pisuak; gaur egun, ordea, ez dira 300.000 eurotik jaisten. 3 urtean soilik %25eko hazkundera gertatu da". Etxebizitzaren prezioak gorantz bultzatzen dituzten beste bi

faktorez ere hitz egin du. Batetik, herriaren inguruan instalatzen ari diren enpresei egin die erreferentzia: "Erraustegia dagoen industrialdean, etorkizuneko kartzela eraikitzen ari dira. Aldundiaren zentro bioklimatikoak ere bai, eta elektromugikortasuneko enpresak baita ere. Horiek Lasarte-Orian bizi nahiko duten pertsona gehiago ekarriko dituzte".

Bestalde, herrian ugaritzen ari diren ostatu eta pisu turistikoek mintzatu da, eta proposatu du udal ondarearen salmentetatik lortzen den dirua "etxebizitza erosteko soilik" erabiltzea, horiek alokairu sozialera bideratzeko:



Miguel Angel Tolosa mikrofono aurrean hizketan, alderdikideak atzean dituela. TXINTXARRI

"Kotxeras eremuan aurreikusita dauden udalaren jabetzako etxebizitza guztiak alokairu sozialera bidera daitezela, baita erakundearen jabetzako etorkizunean egon daitezkeen guztiak ere".

Lasarte-Oriako Udalak Oria Gainen gazteentzako eta adinekoentzako alokairu sozialeko ehun etxebizitza eraikitze proiektuaren "jarraipen zehatza" egingo dutela ere nabarmendu du.



Jaizkibel plazan egin zuen agerraldia PSE-EEK. TXINTXARRI

Boto emaileak mobilizatu nahi dituzte sozialistek

Hilaren 28an boza ematearen garrantziaz aritu dira Agustin Valdivia eta Susana Garcia Chueca hautagaiak

Txintxarri

Agerraldia egin du Lasarte-Oriako PSE-EEK, Jaizkibel plazan. Agustin Valdivia alkategaiarekin izan da Batzar Nagusietarako Donostialdeako hautagai Susana Garcia Chueca. Biek ala biek hilaren 28ko hauteskundearen garrantzia nabarmendu dute eta herritarrei etxean ez geratzeko eskatu: "EH Bilduri mesede egiten dio abstentzioak".

Valdiviak behin eta berriro errepikatu du premiazkoa dela alderdi sozialistari bozka ematea: "EH Bilduk lau urtez gobernatu zuen Lasarte-Orian eta erabat geldi egon zen udaletxea tarte

horretan, ezin dugu horretara itzuli". PSE-EEren kudeaketa gorapatu du eta hilaren 28ko hauteskundeetara begira "aukera onena" dela nabarmendu.

PSE-EEren programan jarri du fokua Garcia Chuecak, eta azpimarratu enplegua, langileen eskubideak, etxebizitza, hezkuntza, osasuna eta pertsonen babesa direla oinarri nagusiak. "Horien guztien gainera arazoak guk bakarrik konpon ditzakegu, kudeaketa eraginkor baten bidez". Mezu hau bidali die herritarrei: "Pentsatzen duzuna bozkatu da gure leloa, bai, baina bozkatzeko duguna pentsatu behar dugu".

Kartelak itsastearekin hasi dira



PSE-EEKo hainbat kide, Isla Plazan. LASARTE-ORIAKO PSE-EE

'Lasarte-Oria eginez'. Lasarte-Oriako PSE-EEK lelo hori aukeratu du aurtengo kanpainarako.



Lokalean elkartu ziren EH Bildukoak. LASARTE-ORIAKO EH BILDU

'Maite dugun Lasarte-Oria egingo dugu'. Eslogan hori zabaldu du EH Bilduk herriko kaleetan barrena.



Alderdi jeltzaleko kideak, Beko Kalen. LASARTE-ORIAKO EAJ

'Aurrera, batera!'. PSE-EE eta EH Bildu bezala, hilaren 11tik 12ra arteko gauean aritu zen EAJ.



ELOPeko kideak, hasi aurretik. ELKARREKIN LASARTE-ORIA PUEDE

'Publikotasunaren indarra'. ELOPeko kideek kanpaina hasi, eta hurrengo egunean jardun zuten.

Hipodromo etorbideko jabetzak, lehiaketa bidez

Lasarte-Oriako Udalak prozesu bat ireki du 39na etxebizitza eta lokal nahiz lau garaje besterentzeko. Kiroldegi berriaren zati handi bat finantzatu nahi du hori eginda: 12.706.789 euro jasoko dituela kalkulatu du, "gutxienez". InmoLasarte agentziak kudeatuko du lehiaketa

Txintzarri

Ohar bat kaleratu du Lasarte-Oriako Udalak, jakinarazteko lehiaketa publiko bidez besterentzeko dituela Hipodromo etorbideko 5. eta 7. zenbakietako 39na etxebizitza eta garaje nahiz lau lokal. Horren helburua da "kiroldegi berria eraikitzeko baliabide ekonomikoak" lortzea. "Gutxienez" 12.706.789 euro jasoko dituela kalkulatu du erakundeak, obraren 19.439.551 euroak finantzaketa "bideragarri" izatea ahalbidetuko du horrek, "beste diru sarrera batzuekin batera".

Etxebizitza eta lokalen kasuan, diru gehien ordaintzeko prest dagoenari adjudikatuko dizkiote. Garajeekin puntuazio sistema bat ezarri dute: 85 puntu eskaintza garestienari; hamar puntu herrian beste garajerik ez dutenei; eta bost puntu etxebizitza edo lokal baten adjudikaziodun izan direnei.

Lehiaketa hori InmoLasarte agentziak kudeatuko du. Eskuorri informatiboak eman eta interesa erakusten dutenekin bilduko da, astelehenetik ostiralera, goizez nahiz arratsaldean. Zita lortzeko zenbait bide izango dituzte interesa dutenek: 943-53 64 81 zein 659 25 73 45 telefono zenbakiak eta info@inmolasarte.com helbide elektronikoa.



Hipodromo etorbideko jabetzak besterentzeko ditu udalak. TXINTXARRI

Lehiaketaren kronograma

- **Hilabete honetako azken hamabostaldia:** eskaintzak aurkezteko epea eta bisita gidatuak.
- **Ekaineko azken hamabostaldia:** eskaera epearen amaiera.
- **Ekain amaiera:** lehen gutunazal eta artxiboak irekitzea.
- **Uztaileko lehen astea:** bigarren gutunazal eta artxiboak irekitzea.
- **Uztaileko bigarren astea:** lehen faseko adjudikazio proposamena.
- **Uztaileko hirugarren astea:** bigarren faseko adjudikazio proposamena.
- **Adjudikaziotik urri amaierara arte:** kontratuak formalizatzea.

Europa iparraldeko doinuak ekarri dituzte Lasarte-Oriara

'Nordika' ikuskizunaren emanaldia egin du Hondarribiako Dos-i taldeak, XVIII. Musika Topaketan barruan

Txintzarri

Danok Kide elkarteak antolatutako XVIII. Musika Topaketan barruan, Dos-i taldeak *Nordika* kontzertuaren emanaldia egin du ostiral arratsaldean Ama Brigitarren

komentuko elizan. Hamaika ahotsez osatutako taldeak Europa iparraldeko obrekin atondutako egitaraua eskaini die eliza bete duten herritarrei, tartean, Felix Mendellsohn konpositorearen zenbait pieza.

Musika lagungarririk gabe, ahotsek soilik baliatu dituzte ordubeteko saioan. Amaitzeko, bis moduan, Leonard Cohen eta Elvis Presley-ren abesti bana aukeratu dute.

Musika Topaketez gain kultur jarduera gehiago aurrera eramaten ari da Danok Kide. Esate baterako, hilabetero opera edo ballet baten emanaldi digitala egiten ari da kultur etxean. Hilabete honetan Giacomo Puccini konpositore italiarraren *Turandot* opera proiektatu dute.



Ikus-entzule ugari bertaratu ziren kultur etxeko auditoriora. OKENDO ZINEMA TALDEA

Haur transexualen errealitatea ezagutzen, pelikula baten bidez

Okendo Zinema Taldeak hilabeteko lehen emanaldia egin du: '20.000 especies de abejas' film entzutetsua

Txintzarri

Okendo Zinema Taldeak *20.000 especies de abejas* film entzutetsua proiektatu du kultur etxeko auditorioan. Emanaldiaren ostean solasean aritu dira pelikularen zuzendari Estibaliz Urresolarekin, erlauntza hori barrutik nolako den ezagutzeko. Ikus-entzuleen jakin-mina piztu zuen hitzorduak eta pertsona ugari bertaratu ziren.

Zortzi urteko Coco (Sofia Otero) gaztearen eta familiako kideen bidez, haurren transexualitatearen gaia jorratzen du Urresolaren lehen film luzeak. Azaldu du Ekai Lersundi gazte ondarrutarrak bizitakoak bultzatu zuela ikus-entzunezko hori prestatzen hastera: "Familiari eta eskolan onartuta bazegoen ere, zailtasun izugarriak izan zituen bera sentitzen zen bezalakoa izateko. Errealitate gogor hori ikusarazte

aldera, bere buruaz beste egin zuen, gertatutako transexualitatearen gaia fokuan jarriko zuelakoan, ordura arte apenas hitz egiten baitzuen gizarteak horri buruz. Lortu zuen", azaldu du zuzendariak. Gertakari horren berri izan eta gero, Naizen Adingabe Transexualen Familien Elkartera hurbiltzeko beharra sentitu zuen, eta elkarrizketa ugari izan zituen bertako kide diren familiekin, gero bere istorioari forma emateko. "Eskerrak besterik ezin dizkiet eman, haien intimitatearen ateak ireki zizkidaten".

Zinema taldeko kide Mikel Yartzak egin zizkion aurreneko galderak Urresolari. Hortik aurrera, hasierako lotsak kenduta, ikus-entzule ugari animatu ziren filma ikusi ondorengo hausnarketak pelikularen zuzendariarekin partekatzen.



Lepo bete zen Ama Brigitarren komentua. TXINTXARRI



TXINTXARRI

Martxan dago Jalgi, berriz ere

Jalgi kafe antzokiak atek berrireki zituen hilaren 11n. Ana Sarasolak gidatutako langile taldea jo eta su aritu zen lanean hasi eta buka, tabernara bertaratu zen bezero andanari pintxoak eta edariak zerbitzatzen. Hori izan zen barruko giroa, goxoa; kanpokoa, berriz, alai, Idoia

Rekondo eta Lierni Arozena trikitilarien eskutik. Jan-edana eskuetan, asko izan ziren Sara Etxeberria artista herritarrek margotutako murala txundituta ikusi zutenak. Jalgiren ordutegia, hau: asteartetik ostegunera, 10:00etatik 22:30era; eta asteburuetan, 10:00etatik 02:00etara.



TXINTXARRI

Bertso afariarekin hasi dira

Mende erdia ospatzeari ekin dio Lasartearra elkarteak, ibaiertzean duen egoitzan bertso afari bat eginda Ane Labaka eta Lierni Rekondo bertsolari herritarrekin. 40 lagun elkartu dira su artean ibili diren sukaldariak prestatutako menuaz gozatzeko: urdaiazpikoa, entsalada, masailak patata purearekin, tarta eta kopa. Lasartearrako lehendakari Txomin Balzak diploma bana eman die bertsolariei.

Txarretik jaiak atera dute

Iñigo de Loiola kaleko bizilagun elkarteak antolatutako festa aurrera eramán zuten hilaren 12an. Egun osoko egitaraua prestatu zuten baina Oriarte Landaberrin elkartu behar izan zuten, eguraldi txarragatik. Ez dirudi gehiegi inporta izan zitzaizkien, jaiak parte hartze zabala izan zuelako. Udaberriko Festa urtero egitea da haien nahia, maiatz hasieran.



TXINTXARRI



TXINTXARRI

Udaberri Festa, urtaro giroan

Eguraldia aproposena izan ez bazen ere, hilaren 12ko asteburuan Udaberri Festa ospatu zuten asteburuan Aterpea merkatarien elkarteak. Ohi bezala, haurrentzako tailerrek, musikak eta dendarien eskaintza bereziek osatu zuten egitaraua. Horrez gain, herritarrek aukera izan zuten Lasarte-Orian zehar bidaiatxo bat egiteko txu-txu tren zuri-urdinean.

bertako
igogailuak | ascensores

BENETAKO OROTARIKO ZERBITZUA

100€-tik/hileko

**IGOGAILUEN
MANTENTZE-LANEN
ESKAITZA
ZORROTZENA**

**+2.000 bezerok gudan
dute konfiantza**

943 903 450
bertako.eus



Gimnasta gazteak podiumean izan dira

LOKEko gimnastek Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketari aurre egin diote. Taldeka, bikotea zein bakarka lehiatu dira herriko kirolariak. Alebin mailan, Landaberri 1 taldeak eta Laia Suberbiola-Aiala Jimenez bikoteak garaipena lortu dute

Txintxarri

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) eskolarteko mailako gimnastek hitzordu garrantzitsua izan zuten hilaren 13an, Gipuzkoako txapelketa. Infantil mailako kideak goizean eta alebinak arratsaldean lehiatu ziren Bergarako Labegaraieta kiroldegian. Alebin C mailako Landaberri 1 taldea eta Laia Suberbiola-Aiala Jimenez bikotea podiumeko gorenean izan ziren.

Infantil mailako gimnastek eman zioten hasiera jardunaldi bikoitzari. LOKE 1 eta LOKE 2 taldeek parte hartu zuten finalean eta zortzigarren eta hamaikagarren postuetan amaitu zuten lehia.



Alebin mailako gimnastak, lortutako trofeo eta dominekin. LOKE

Arratsaldean, aldiz, alebin B eta C mailako kideen txanda izan zen.

Kategoria horretako lehiak bi talde izan ziren, Landaberri 1 eta Landaberri 2, eta biak izan

ziren lehen postuetan. Landaberri 1ek lehen postua eskuratu zuen eta Landaberri 2 laugarren izan zen.

B multzoan, aldiz, Landaberriko taldea eta bikotea aritu ziren. Taldeak bederatzigarren postuan amaitu zuen saioa.

Laia Suberbiola eta Aiala Jimenez gimnastek osatutako bikotea, berriz, podiumeko gorenera igo zen. Bakarkako lanetan garaile izan ziren biak; soka lanean Jimenez eta esku libre lanean Suberbiola.

LOKEko arduradunak pozarren daude lortutako emaitzekin. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiete gimnastak animatzera joan ziren gurasoei.

Fernandez, bigarren Gipuzkoako Trainerilla txapelketan

Intza Fernandez herritarrak Hondarribia A ontzian egin du arraun; bigarren postua ere lortu dute ligan

Txintxarri

Hondarribia Arraun Elkarteko trainerilla eta Intza Fernandez herritarrak hitzordu bikoitza izan zuten hilaren 13an eta 14an, Hondarribian.

Lehen egunean, Trainerilla ligako azken jardunaldia jokatu zuten. zazpi ontzi lehiatu ziren eta Hondarribia A taldeak bigarren postua eskuratu zuen Tolosaldearen atzetik. Postu

horrek hurrengo eguneko Gipuzkoako txapelketan parte hartzeko txartela eman zion eskifaieri eta Intza Fernandez herritarrari.

Lehiaketa horretan Tolosaldea, Hibaika A eta Zumaia ontziekin neurtu zituzten indarrak berdeek. Tolosaldea izan zen garailea (17.38,38); Hondarribia A (17.59,52) podiumeko bigarren mailara igo zen eta Intza Fernandez herritarrak zilarrezko domina jantzi zuen.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

Ostadar SKT - Real Sociedad SAD C
Larunbata. 13:25. Michelin kirol gunean.

GORENGOEN MAILA

Hernani CD B - Ostadar SKT
Larunbata. 18:30. Zubipe, Hernanin.

ERREGIONAL 1. MAILA, KOPA

Ostadar SKT - Usurbil FT B
Larunbata. 15:30. Michelin kirol gunean.

Pasaia KE B - Texas Lasartearra CF
Igandea. 16:00. Jesus M. Zamora, Erreterian.

OHOREZKO JUBENIL MAILA

Ostadar SKT - Lengokoak KE
Larunbata. 11:30. Michelin kirol gunean.

JUBENIL 1. MAILA, IGOERA

Hondarribia FE B - Ostadar SKT B
Igandea. 12:00. Ondartza, Hondarribian.

JUBENIL 1. MAILA, KOPA

Texas Lasartearra CF - Sporting de Herrera B
Igandea. 10:30. Michelin kirol gunean.

OHOREZKO KADETE MAILA

Hernani CD - Ostadar SKT
Larunbata. 11:30. Zubipe, Hernanin.

KADETE 1. MAILA, KOPA

Ostadar SKT C - Arrupe Chaminade CD C
Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.

Texas Lasartearra CF - Aizkorri FT C
Larunbata. 17:30. Michelin kirol gunean.

Beti Ona CD C - Ostadar SKT B
Larunbata. 11:00. Beraun, Erreterian.

INFANTIL TXIKI, KOPA, KANPORAKETA

Amaiak Bat KE - Ostadar SKT
Igandea. 15:45. Errotazar, Deban.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO ESKOLARTEKO JOKOAK

Gipuzkoa (Eguzki AF) - Araba
Larunbata. 11:30. Ispilla kir., Zumarragan.

Bizkaia - Gipuzkoa (Eguzki AF)
Larunbata. 12:30. Ispilla kir., Zumarragan.

BOLEIBOLA

JUBENILA, AZKEN FASEA

Aldapeta Maria B - Ostadar SKT
Ostirala. 19:30. Aldapeta Maria ik., Donostian.

Harresi 2 - Ostadar SKT (atzeratutako neurketa)
Larunbata. 17:30. Aldapeta Maria ik., Donostian.

INFANTILA

Tolobolei Herrikide - Ostadar SKT A
Larunbata. 11:30. Uzturpe fr., Tolosan.

PILOTA

JUB. 2. MAILA, LAU ETA ERDIA

LAPKE (Harreguy) - Intza (Diaz de Gereñu)

Ostirala. 17:30 (3. partida). Joxemiel Barandiaren pilotalekua., Lazkaon.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Intza (Iparragirre) - Abantzu (Ayasa)
Ostirala. 19:30 (1. partida). Loidibarren pil.

Arrasate (Martin) - Intza (Jauregi)
Larunbata. 15:30 (3. partida). Behar Zana pilotalekua, Villabonan

UDABERRI TX., ALEBINAK 1. MAILA

Intza - Arrasate 1
Ostirala. 19:30 (2. partida). Loidibarren pil.

ERRUGBIA

LAGUNARTEKOA

Zarautz Beltzak KE - 18 urtez azpiko Zarautz Beltzak KE
Larunbata. 09:30. Asti, Zarautzen.

16 URTEZ AZPIKOA

Zarautz Beltzak KE - Getafe RC
Larunbata. 10:45. Asti, Zarautzen.

14 URTEZ AZPIKOA

Gaztedi RT - Zarautz Beltzak KE
Larunbata. 10:30. Gamarra, Gasteiz, Araban.

GIMNASTIKA

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

LOKEko amateur mailako gimnastek Gipuzkoako Eskolarteko txapelketa lehiatuko dute.

Larunbata. 10:00 eta 16:30. Azpeitiako kiroldegian.

IGERIKETA

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Buruntzaldea IKTKo gaztetxoek Gipuzkoako eskolarteko Txapelketa jokatu dute.

Igandea. 10:00 eta 16:00. Agorrosin kiroldegia, Bergaran.

ATLETISMOA

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Ostadar SKTko 20, 18 eta 16 urtez azpiko atletek Gipuzkoako txapelketako lehen jardunaldian parte hartuko dute.

Larunbata. 15:30. Kote Olaizola estadioan, Donostian.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Ostadar SKTko infantil eta alebin mailako atleten proba konbinatuetako Gipuzkoako txapelketako lehen jardunaldian parte hartuko dute.

Igandea. 10:30. Kote Olaizola estadioan, Donostian.

Aurrera, batera!
Lasarte-Oria



JON ANT XOR DOKI REKONDO
Lasarte-Oriako alkatezarako hautagaia

EIDER MENDOZA LARRAÑAGA
Gipuzkoako diputatu nagusirako hautagaia

ZORION AGURRAK



Maddi
Zorionak printzesa!!!
8 muxu handi
zuretzak. Ondo pasa!!!
Zure familiaren partetik.
Maite zaitugu.



Roberto eta Begoña
Zorionak bikote zuen 33. urteurrenean eta eskerrik
asko sortu duzuen familiarengatik!

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 19	DE ORUE	EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00
LARUNBATA, 20	LASA	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
IGANDEA, 21	LASA	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
ASTELEHENA, 22	DE MIGUEL	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTEARTEA, 23	URBISTONDO	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
AZTEAZKENA, 24	GIL	GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
OSTEGUNA, 25	ACHA-ORBEA	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00
K. Aizpuru Odriozola: Latxumbe Berri 11, Hernani. 943 33 60 77

'URTE OSOKO GUARDIAK' APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen
Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

ESKELA

OROIGARRIA

Imanol Lizardi Camarero-Nuñez

(Ttakun Kultur Elkarte baxkide eta laguntzailea)

-Goian bego-

2023ko maiatzaren 11n hil zen,
65 urte zituela.



Besarkada handi bat familiari

Ttakun Kultur Elkartea

OROIGARRIA

Imanol Lizardi Camarero-Nuñez

*Irri ile-zuri bat
publikoan adi,
euskalgintzaren eta
kulturaren hari.
Zenbat bertso-eskola,
Santa eske, afari...
Besteei laguntzeko
sekula ez nagi.
Nahiz ez zaren egongo
hezur eta haragi,
guk jarraituko dugu
zurekin kantari.*



Hire bertso lagunak

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943-37 16 29
EUSKARAKO ZERBITZUA:
943-37 61 84
KIROLDEGIA: 943-37 61 82
MANUEL LEJUONA KULTUR ETXEA:
943-37 61 81
GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
KIUB: 943-36 16 05
UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
MUNTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
DYA: 943-46 46 22
GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
UDALTZAINAK: 943-36 24 42
ERTZAINZTA: 943-53 88 40
SOS DEIAK: 112



Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n.

Deitu 943-37 14 48 telefonora,
bidali haurraren

Jaio da!

izen-abizenak eta jaiotze data
txintxarri@ttakun.eus

helbide elektronikora
edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN HARTU

Donostian hilabete batzuetarako alokairu bila gabiltzan familia bat gara. Gubxi gorabehera 2023 ko urritik 2024 ko martxora arteko hilabeteetarako behar dugu, eta Amaran, Easo plaza inguruan edota hiriko erdigunean alokatzea gustatuko litzaiguke. Ahal izanez gero 2 gelako etxebizitza beharko genuke. Harremanetarako 639 98 76 45 / 690 27 04 68 (Olatz eta Aitor).

ERRENTAN EMAN

Bi neska gazte gara eta pisukide bila gabiltza.

Etxea Zabaleta auzoan dago, 70 m2 ditu eta alokairua hilabetean 200 euro dira (gastuak aparte). Interesa baduzu deitu mesedez telefono honetara: 663 93 51 76 (Irtati)

LANA

ESKAINITZA

Jalgi Kafe Antzokiak zerbitzaria behar du, astean 20 ordu lan egiteko eta, ahal dela, berehala hasteko. Harremanetarako zenbakia, 696 55 29 25.

Etxeke lanak egiteko pertsona bat behar dugu, lanaldi erdiz.

Harremanetarako zenbakia, 695 78 32 02.

Game Master bila gabiltza. Euskaraz jakitea, asteburuetan lan egiteko prestutasuna eta Lasarte-Oriakoa izatea baloratuko ditugu. Bidali CV info@quantum.eus-era

Jornada erdian etxea garbitu eta sukaldatzeko emakume euskaldun baten bila gabiltza. Kotxea izatea beharrezkoa da. Mugikorra: 644116122

ESKARIA

Gaztea 24 urte, edozein lan egiteko eskaintzen naiz (zerbitzari,

garbiketa...) FP-2 mekanizatu egin dut. Zubietan bizi naiz. Harremanetarako zenbakia, 602 082 583.

Etxeke lanak egiteko edo pertsonak lagundu eta zaintzeko eskaintzen naiz.

Orduka. Zubietan bizi naiz. Euskaraz ez dakit. 44 urte eta eskarmentua dut. Harremanetarako zenbakia, 602 082 583.

Lan bila nabil interna, orduka edo asteburuetan. Adineko pertsonak

zaintzen eskarmentu handia dut. Harremanetarako zenbakia, 663 48 84 38.

Interna gisa egingo nuke lan, astelehenetik igandera. Esperientzia dut, eta pertsona helduak

zaintzeko Eusko Jauraritzaren ikastaroaren ziurtagiria ere bai. Harremanetarako zenbakia: 618 81 43 63.

Pertsona helduak zein haurrak zainduko nituzke, edota garbiketa

lanak egin. Harremanetarako zenbakia: 663 49 98 41

Lan bila nabil egun osoz edo orduka (egunez zein gauez). Erietxeetan ere zaintza lanak egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 624 63 06 99.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeke lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

SALEROSKETA

SALDU

Su egurra saltzen da (haritza), tximinirako, ekonomikarako... Etxera eramatea. Harremanetarako zenbakiak: 667 23 23 00 eta 616 83 09 02.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA

Unibertsitateko ikaslea errefortzu klaseak emateko zein haurrak zaintzeko prest, goizez nahiz arratsaldez. Harremanetarako zenbakia, 688 65 56 93.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646 82 44 66

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administrataria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irtati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maitane Rebe, Julen Basterra,
Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak

Egoitz Epelde, Iñigo Garcia, Julene Iraola, Sergio Hernandez, Ander Hazas, Endika Merchan eta Gorka Morales.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua:

SS-513/93

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN

OSTIRALA 19

LASARTE-ORIA Literatura

Diego Matxinbarrena artistaren lanak erakutsiko dituzte Siglo 20 tabernan, ekainaren 20ra arte. Sarrera, doan.

Siglo taberna, 19:00etatik 21:00etara.

LARUNBATA 20

LASARTE-ORIA Tailerrak

Auzoz auzoko tailerrak antolatu ditu Lasarte-Oriako Udalak:

11:00etatik 13:00etara, hennarekin tatuajeak egiten ikasiko dute, Orian.

12:00etatik 13:00etara, imajinazioa dantzan jarriko dute txikienek Oria auzoan bertan, ipuin kontalariaren eskutik.

Oria auzoan, 11:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Dantza

Yarin dantza ikuskizunaren emanaldia egingo dute Jon Maya eta Andres

Marin dantzariak. Sarrerek 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 20:00etan.

IGANDEA 21

USURBIL Jaia

40. Sagardo Eguna ospatuko dute usurbildarrek, goizetik hasi eta iluntzera arte. Irekiera ekitaldia 11:30ean egingo dute eta arratsaldean Matraka elektrotxarangak girotuko ditu herriko kaleak. Horrez gain, Oihan Agirretxe herritarraren Rukula taldeak disko berria, *Traganarru*, aurkeztuko du txosnetan, 20:00etan.

Usurbilen, 11:30etik aurrera.

OSTEGUNA 25

LASARTE-ORIA Hitzaldia

Ostadarretik pasa diren kirolari nabarmenenak hitzaldia antolatu du Ostadar SKTk, bere 40. urteurrena ospatzeko egitarauaren barruan. Sarrera, doan.

Manuel Lekuona Kultur Etxeko hitzaldi aretoa, 19:00etan.

OSTIRALA 26

LASARTE-ORIA Erakusketa

40 urtez kirola sustatzen argazki erakusketa zabalduko du Ostadar SKTk, lau hamarkada betetzen dituela ospatzeko prestatu duen egitarauaren barruan. Sarrera doakoa da.

Antonio Mercero gunea, 18:00etatik 20:00etara.

EKAINAK 1

LASARTE-ORIA Hitzaldia

Emakumea eta kirola izeneko solasaldia izango da Ostadar SKTk bere 40 urteak ospatzeko aurrera eramango duen azkena. Sarrera doakoa da. Ekainaren 2ra arte egongo da zabalik, ostiralarekin.

Antonio Mercero gunea, 19:00etatik aurrera.



LASARTE-ORIA Dantza. Euren sustraietatik begiratzen dituzten bi dantzari (Jon Maya eta Andres Marin) topatuko dituzte *Yarin* dantza ikuskizunaz gozatzera bertaraten diren ikus-entzuleek. Julen Achiary-k girotuko du emanaldia zuzeneko musikarekin. Sarrerek 6 euro balio dute eta kultur etxeko leihatilan zein Kutxabank Sarrerek atarian eros ditzakete herritarrek. Bihar, hilak 20, kultur etxeko auditorioan, 20:00etan.

EKAINAK 3

LASARTE-ORIA Jaia

Denboraldi amaierako festa egingo du Ostadar SKTk eta, horrekin batera, 40. urteurrena ospatzeko egitaraua itxiko du. Kirolari Onenaren saria eta Auzolan aitortza

emateaz gainera, sail bakoitzeko taldeetako entrenatzaileek 2022-2023 denboraldiko jokalaria onenak izendatuko dituzte. Amaitzeko, hirugarren denbora prestatuko dute Beltzak errugbi eskolako kideek.

Michelingo pilotalekua, 11:00etatik aurrera.



ehbildu



Maitte duzun Gipuzkoa

Bizitzak ez
du preziorik.

*Fakturek bizitza
baldintzatu ez
diezaguten.*

**EGINGO
DUGU.**

Betira arte, Imanol

Euskara eta kultur arloko erreferenteetako bat galdu berri du Lasarte-Oriak: Imanol Lizardi hil da, 65 urterekin, eritasun larri baten ondorioz. Earra Bertso eskolaren nahiz Ttakun Kultur Elkartearen sortzaileetako bat izan zen eta Olentzerori zein Mari Domingiri harrera egiteko taldeko kideetako bat. Euskara irakasle ofizioz, horren maite zuen hizkuntzaren bueltan ibili zen beti: irakasten, erakusten eta ikusarazten. TXINTXARRI aldizkariko langileon partetik, eskerrik asko gure bidelagun ere izateagatik. Betira arte, Imanol.

IÑAKI ARRUTI LANDA **Agur, Olentzero!**

“Laister esango da zuegatik, esaten oi dana gugatik illciran!”. Hilerri zaharreko sarrerako harrian zizelkatutako esaldi hura eta Gure Etxea tabernako “Ona zioz emen! Ez arritu. Beti bezalakoa zioz eta!” dioen paneleko beste hori. Horiek biak omen hituen hi mutil koxkor hintzela herrian euskaraz irakur zitezkeen idatzi bakarrak. Herorrek esandakoa dek, Imanol.

Testuinguru horretan jaio hintzen. Hizkuntza baten galera-prozesuko azken urrats erabakigarria gure herrian gertatzen ari zenean, familia barruko hizkuntzaren transmisioa ia erabat etena zegoen unean. Kanean dena gaztelaniaz, ia etxe guztietan ere bai, anaia-arreben artean ere bai... Eta ama izan huan azken haria: “Kanean nahi dezue egingo dezue, baina etxe honetan euskeraz egingo da”. Arigunea, antza denez. Jasandako zapalkuntza linguistikoari aurre egiteko azaldutako jokaera irmoa eskertu izan diok amari lehen ere. Mila esker, Itziar.

Harrezkeroztik, ordea, zumitz horiekin egin dituk kontaezinak diren zesto guztiak; xesto goxoak, inondik ere: bat, Gau Eskola; bi, Euskal Eskola Publikoa; hiru, Lasarte-Oria Berreuskalduntzeko Batzordea; lau, Euskara Taldea; bost, Euskal Girotze Barnetegia; sei, Udaleko Euskara Azpibatzerdea; zazpi, Olentzero; zortzi, Euskararen Maratoia; bederatzia, Ttakun; hamar, Bertso-eskola...

Hogeita hamar urte baino gehiago dituk, Imanol, “Eta zergatik ez degu Lasarten bertso-eskola bat antolatzen?” galdera egin hidala eta... nola labur harrezkeroztik bizitutakoak? “Earra!” izan dek hire baratzeak uzta, Imanol, Lasartekoa eta Alkizakoa, biak. Hik ere badakik. Ereindakoaz jakitun eta harro joan haiz. Aurtengo udaberriko bertso-saioan bertso-eskolako gazteek “Errima bat falta zait” izenburua duten (eta xestoak izan zitezkeen) poltsak, *tote-bag*-ak, zizkiaten salgai. Bazekiat orain zein den falta zaigun errima.

Horixe izan haiz guretzat, Imanol, falta zitzaigun errima. Aurrekoa eta ondorengoa uztartzeko tarteko errima hori, zubiarena, arkupearena, xestoarena egiten zuen errima hori. Hire amaren eta belaunaldi berrien arteko errima, frankismoaren eta gizarte berdinago baten arteko errima, ikastolaren eta eskola publikoaren tarteko errima, ideologia politiko desberdinen bitarteko euskararen errima, euskaldun izan nahi duen erdaldunaren eta izateko nahia eraikitzen ari den euskaldunaren arteko errima. Armairutik atera nahi duten ahobizien eta belarripisten arteko errima. Patxi Etxeberriaren eta errima faltan dabilen gaztetxoaren arteko errima.

Denetan moldatzen hintzen ondo, Imanol. Gai, doinu eta neurri diferenteak izan, faltan egon ohi den errima hori eskaintzen huan beti. Egon behar den tokian eta egon behar den moduan egoten jakitea dek hori. Egoten jakitea edo... izaten jakitea dek hori. Irakaslea izan haiz, Imanol. Irakaslea ofizioz, irakaslea afizioz. Hi izan haizen modukoa izanez esango nizek izan haizela irakasle. Beti ikasiz, entzunez, arituz irakasten duen tipo klase hori. Beti modu onez, zentzuz, balore sendoz, jator, pasioz, ttakunaren doinuaz, biltzera deituz, eskainiz eskatu aurretik.

Hik ondo ezagutzen dek Olentzero. Agurtu ezak gure partez eta esaiok betirako gordea dugula emandako oparia. Oparia hi izan haiz, Imanol. Estimatu zioz!

MIKEL ZINKUNEGI ARTOLA **Imanol Lizardiri**

Euskerak eta Lasarte herriak elkartu gintuen. Hirurogeitahamarreko hamarkadaren erdialdia zen eta ez ziren garai errezak (Franco hiltzear...). Gu gazteak ginen –18 urte inguru– eta herrian ez zen euskera asko entzuten kanean eta gazteen artean ia batere ez.

Buruntzaldeko beste herrieekin koordinatuta, Gau-Eskolak antolatu genituen Lasarten. Talde txiki bat zen eta apaizetxean elkartzen ginen. Sasoeta eta REM ikastetxeetan lortu genituen gelak eta gauetz ematen genituen klaseak. Lanetik atera ondoren etortzen ziren euskera ikastera. Horrela ibili ginen urte haietan. Gu biori soldaduskak moztu zigun klaseak emateko jarduna. Geroago etorriko ziren AEK eta besteak.

Oso gazte egin ginen euskeraren militanteak (ateratzen ziren euskal musikako kasete ia guztiak eskuratu eta abestiak ikasten genituen...). Etxetik genekien euskera eta kanean hitz egiten hasi ginen. Alfabetatzen egin genituen aurreko urteak, Landaberrin ibilitako irakasle batzuen eskutik aurrea eta Donostiako EUTGra larunbat goizetan joanez, hurrengo urtean. Txillardegik eman zizkigun dialektologia ikasketak sakontzeko Zuberoako elizetan kantu liburuak arakatzeko ibili ginenekoa datorkit burura.

Magisteritza ikasi genuen eta eskola publikoan sartu ginen (garai haietan "escuelas nacionales"), Euskera irakasle gisa. Hasierako urte haietan kontrako asko aurkitu genituen barruan, baina tinko eutsi genion bide horri. Kinta berekoak izanik, berrogei bat urteren ondoren jubilatu ginen.

Urte horietan guztietan, euskera beti ardatz edukita, makina lan egin duzu izan zaren eskola eta barnetegietan eta bizi izan zaren bi herrietan. Beti borondate ona eta lanerako prest. Bizitzarako ere oso eskuzabala izan zera. Alkizako zure etxera joaten zenak solasaldi ederra izaten zuen eta ez zen inoiz esku hutsik ateratzen: sabela beteta, tomate pare bat eskuetan eta bertsoaren bat buruan.

Eta zauden tokian zaudela, ziur nago, lagun, aurkituko duzula bertsoan ibiltzeko aukera, barazkiak landatzeko baratza eta perretxiku bila joateko mendia.

Faltan botako zaituzte Alkizan eta hutsune handia utzi diguzu hemen, Lasarten. Aio, Imanol!!!

